




BARREN  
TOKIKOM



# Pantailei katigatuta







## *Koldo Aranburu Osa*

2021eko urriaren 20an hil zen,  
67 urte zituela.

*Joan zara, Koldo,  
nahi eta espero baino lehenago.  
Zure hutsunea betetzea  
ez da erraza izango.  
Bihotz handiko gizon txikia.  
Zintzotasunez beteriko begirada urdina.  
Irribarre beti atsegina.  
Zure ideiak beti defendatzen,  
batzuetan garesti irten zaizun arren.  
"Guztiak dauka bere prezioa", esan zenidan  
baina merezitako ahalegina zela,  
argi zeneukan.  
Zure etxeko ateak beti zabalik.  
Zure eskuak beti laguntzeko prestaturik.  
Zure iraultzak ez zeukan sekula bukaerarik.  
Azken arnasa egiteko ere,  
ez duzu izan beldurrik.  
Zu, beti bizirik.  
Ez adiorik.  
Orain, bazoaz, "Jamaikara", lasai lasai, zigarrotxo bat erretzera.  
Inoiz ez zaitugu ahaztuko,  
zu bezalakorik sekula ez dugu aurkituko.  
Eskerrik asko, tio Koldo.  
Betirako gure bihotzean.*



## *Koldo Aranburu Osa*

2021eko urriaren 20an hil zen, 67 urte zituela.

***Kimetz Elkarteko zure lagunak.***

***Adiorik ez!***

***Izarren hautsetan elkartuko gara!***



azaroaren 22tik  
abenduaren 5era

HAURREN  
AURREAN,  
HELDUOK  
HELDU



- ✓ 0 eta 12 urte arteko umeekin harreman zuzena duten helduen arteko hizkuntza-praktikak aldatu eta euskara gehiago erabiltzeko aktibazio ariketa da *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena.
- ✓ Ariketa helduek egiteko da (umeen gurasoek, aiton-amonek, zaintzaileek ...), baina be-launaldi gazteengan ere pentsatu dugu. Izan ere, umeek euskara normaltasunez erabiltzea nahi badugu, helduok eredu izan behar dugu.
- ✓ Helduen eredurik ez badago, umeek hizkuntza ikasi bai, baina ez dute erabiliko. Umeei eskatzen zaie euskaraz egiteko, baina gero helduok ez badugu geure artean euskaraz jarduten, mezu kontraesankorrak bidaltzen ari gara.
- ✓ Helduok zer hizkuntzatan, noiz, norekin, zeri buruz... egiten dugun ikusi eta entzuten dute umeek, eta horrek goitik behera baldintzatzen du umeen hizkuntza-portaera. Umeek hizkuntza ez ezik, hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak eta hizkuntzen arteko hierarkiak ere barneratzen dituzte.
- ✓ Euskal Herrian 2016an egin zen kale neurketaren arabera, euskara gehien erabiltzen da umeak eta helduak elkarrekin daudenean. Berri pozgarria. Baina erabilera daturik baxuena nagusiak umeen presentziarik gabe ari direnean jasotzen da.



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

## Biolentzia ikusezinak

banatzen eta euskalduna, euskaldunak zintzoak dira. Eta horrela beste zenbait ezaugarriekin ere: langilea, partehartzailea, animalia zalea, ezkertiarra, txuria....

Horrela, informazio bat jasotzen dudanean, ditudan osagaien arabera finkatuko ditut kategoriak; nerabe ijitu batek hezitzailea euskalduna salatzen du. Bakoitzatuz dugun informazioarekin eragiketa matematiko antzeko bat egiten dugu lehen iritzia izateko; ijitua eta nerabea kontzeptuak negatibora joaten zaizkigu eta hezitzailea eta euskalduna, aldiz, positibora, errazena salatzen duen hori auzitan jartzea delarik.

Funtzionamendu hau erabat inkontzientea eta automatikoa da eta hainbat eta hainbat biolentzia ikusezin mantentzen laguntzen du. Gure auzo eta herriak itzal ikusezinez betetzen ari dira; sufritzen duen hori, gure ikuspegitik begiratuta itxura xelebrea duena, ez duena beti asmatzen zer esan, hizkera "arraroa" sumatzen diodana, portaera eta sinismen ezberdinekin kontaminatu nahi nauena..., piskanaka ikusezin bihurtzen da; ez da herritarra, ez da auzokidea, ez da gurasoa, ezta ikaskidea ere... ezerezera kondentzen ditugu "nahi gabe" eta aintzat ez hartzea baino mespretxu handiagorik ez dagoela dio esatera erdaldun batek.

**B**iolentzian pentsatzen dugunean erasotzailea eta erasotua irudikatzen ditugu, eta horrela kategoria finko eta argietan banatzen dugu gizateria; badira pertsona onak eta txarrak, eta garbi daukagu zein multzotan nahi dugun kokatu geure burua.

Eta neure burua zintzoen artean ikusten dudanez, zintzoak neure berezitasunekin irudikatzen hasten naiz logika tautologikoa erabiliaz: ni zintzoa

*"Kategoria finko eta argietan banatzen dugu gizateria; badira pertsona onak eta txarrak, eta garbi daukagu guk zein multzotan nahi dugun kokatu geure burua"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olazola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ GERO ARTE, BETI GAZTE

Gure gazte denboran ez genuen, orain bezala, ohitura handirik argazkiak egiteko. Horregatik, etxean gordetako eta egindako argazki gutxi horiek berebiziko garrantzia izan dute geure ibilbidean arrastoa utzi duten pertsonak nortzuk izan diren gogorarazteko. Eta zu horrelako batean zaude, Koldo, zuri-bel-

tzean, Etxeberria, Juaristi eta Blancorekin, poligonoan, espaloian eskuinean eserita. Ez dakit zer nolako ekitaldia ospatuko genuen, baina, zer edo zer berezia izango zen, ze guztiok oso dotore gaude. Zu praka motzak eta galtzerdi zuri luzeak jantzita zaude, gomadun gorbata lepoan kateatuta, eta zuri begira nagoela zera pentsatu dut: orain

badakit, bidalitako oraingo argazkia eta ordukoa ikustean, zergatik esaten zizuten beti gazte.

Juan Luis Mugertza



## Koldo Aranburu Osa

2021eko urriaren 20an hil zen, 67 urte zituela.

**Izar gorri berri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.  
Eskerrik asko, Koldo.**

Otegi-Arregi familia




Eskertzak eta urteumenak  
**943 743 704 / 688 769 657**  
 Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)




*Betirako gure bihotzetan*

## Urte amaierarako amaitu nahi dituzte Urruzunoko zabortegia zigilatze lanak

Uztailean hasi zituzten Urruzunoko zabortegia behin betiko zigilatze lanak, eta ondo bidean, urte amaierarako amaitzea aurreikusten dutela jakinarazi du losu Arraiz Mankomunitateko lehendakariak, zigilatze lanen berri emateko prentsaurrekoan. Arraizek esan zuen obrak iragazgaitze-fasean daudela orain. Fase honen helburua zera da: saihestea euri-ura hondakinen artean iragatea, Arantzelatik erreka kutsatzen duten lixibiatuak sortzea eragozteko, lixibiatu horiek Arantzelatik errekan ez ezik Deba ibaian ere eragingo luketelako.

Eremua zigilatzen dutenean, estaldura-lurzoru bat ipiniko dutela zehaztu zuen Arraizek. Ondoren, landaredia landatuko dute, eta euri-urak drainatzeko sarea instalatuko dute, Eusko Jaurlaritzak zabortegia ixteko eta ingurumena berreskuratzeko emandako Ingurumen-Baimen Bateratuaren aurreikuspenak beteta. Zabortegia zigilatze ondoren, hormigoizko zola bat eraikiko dute, Mankomunitateko materialen biltegi gisa erabiltzeko; kamioiak eta furgonetak eroso moldatzeko eta beharrezko logistika-lanak egin ahal izateko gune bat izateko, alegia. Gune horrek 2.400 metro koadroko azalera edukiko du.

Viuda de Sainz eta Urdirberriren artean osatutako ABEEa ari da obrak egiten (1.083.518 euroko prezioan esleitu zieten obra). Lanen zuzendaritza Hirigintza enpresaren esku dago eta Kantabriako Unibertsitatea ari da geosintentikoak behar bezala jartzen ari direla gainbegiratzen.

## A8 Autobideko zaraten kontrako paneletan egindako graffitiek kalte egin dutela salatu du Bidegik



Graffitiak egin dituzte A8 autobidean jarri zituzten zaraten kontrako paneletan, Bilborako noranzkoan, eta Bidegitik ohartarazi dute graffitiek panelen eraginkortasuna eskatu dutela. Era berean, gogorarazi dute pantailatan graffitiak egitea legez kanpoko delat. Pantailen harira, zehaztu dute arrokazko artilea dutela barruan, trafikoak sortutako zarata arindu eta xurgatzeko funtzioa duen zuntzeko materiala eta zuntz hori kanpoko pantaila porotsu batekin babestuta dagoela, zeinak material fono-xurgatzaileari eustiaz gain zarata barruan sartzea ahalbidetzen duen, xurgatu eta moteltzeko. Graffitiek, baina, pantailen gainazal porotsua iragazgaitz egiten dutela azaldu dute, xurgatzea zailduz eta errebote-efektua eraginez. Bidegik 1.550.180 euro (BEZ gabe) inbertitu ditu A8-aren bi aldeetan pantailak jartzeko, 1.271 metrotan.

## Gazteentzako zientzia eta teknologia tailerrak

Zabaldu dute *Bizilabe* egitasmoan izena emateko epea, DBHko lehenengo eta bigarren mailako ikasleentzat. Elgoibarko Udalak eta Elhuyarrek sustatutako ekimena da, eta 10 eta 14 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Ikastaroan zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten hainbat esperimentu egingo dituzte, eta taldean sortuko dituzte proiektuak, sektoreko profesionalak gidatuta. Era berean, eskualdeko ikerketa-zentro batzuk eta enpresak ere bisitatuko dituzte eta harremanak izango dituzte sektoreko profesionalekin. Saioak astelehenetan eta eguenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara, Makina Erremintaren Museoa.

## 2022ko udal aurrekontua modu parte-hartzailean osatzeko eskatu du Elgoibarko EHBilduk

2022ko udal aurrekontuetan "herritarren parte-hartzea bermatzeko" proposamena egin du Elgoibarko EH Bilduk Udalean. Datorren urtean diru publikoa nola gastatuko den erabaki behar den uea hurbiltzen ari dela adierazi dute ezker abertzaleko arduradunek, eta euren ustez ezin da ulertu herritarrek eskura ditzaketan aurrekontuei buruzko lehen informazioa aurrekontuak onartu ondoren izatea. Horretarako ondorengo eskaera egin diote Udalari: Aurrekontu-proposamena herritar guztien artean zabaltzea, informazio-karpak jarritz edo informazio-liburuxkak banatuz. Aurrekontu-proposamena herritarrei aurkeztea auzo-batzarretan edota arloko-batzarretan, eta azkenik, herritarren proposamenak jasotzeko epea irekitzea, horretarako behar diren bitartekoak jarritz (telematikoa, herritarren postontzia...).



## Hemen bertako zuhaitz espezieak landatu dituzte Zirardamendin

Bertako zuhaitz eta zuhaixkak landatzen aritu ziren hainbat boluntario zapatuan, klima aldaketaren kontrako nazioarteko egunean, Zirardamendin. Eroski kooperatibak antolatu zuen ekimena, ingurumena babesteko WWF erakundearen eskutik eta Lurguia fundazioko lan-



guntzarekin. Eroski kooperatibak osasun eta jasangarritasun arloan hartu dituen hamar konpromisoen barruan, ingurumen-boluntariotzako hiru ekintza jarri zituen martxan 2021eko udazkenerako: hezeguneak garbitzea Mallorcan, lurzoruak leheneratzea Ourensen eta zuhaitzak landatzea Gipuzkoan. Azken ekimen hori Elgoibarren gauzatu zuten. Lurguia fundaziokoek urte hasieran Zirardamendin landatu zituzten zuhaitz landareen ondoan landatu zituzten landare berriak: haritzondoak, gurbitzak eta erramuak. Ehun bat landare landatu zituzten guztira boluntarioek. Eroskiko bezeroek Zentimo Solidarioak programarako egindako diru ekarpenari esker finantzatu dituzte ekimenok. Ingurune naturalak babesteko eskatu zuten laguntza hori joan den ekainean eta 132.755 euro batu zituzten guztira.

## Goñati frontoiko komun publikoak herritarren erabilerarako zabalduko ditu Mendaroko Udalak

Goñati frontoiko komun publikoak herritarren erabilerarako zabalduko ditu Mendaroko Udalak. Igandetik eguenera, 8:00etatik 21:30era, egongo dira zabalik, eta bariku eta zapatuetan, 8:00etatik 22:00etara. Gavez itxi egingo dituzte. Albiste honen harira poza agertu dute Mendaroko EHBildutik, aspaldiko eskaera izan dutelako herritarren komun publikoak jartzearena. Maiatzeko kreditu aldaketetarako luzatutako proposamenen artean ere jaso zuten herrigunean komun publikoak ezartzeko 60.000 euroko partida gordetzea. Udal gobernua, baina, atzera bota zuen orduan proposamena. Nolanahi ere, frontoiko komunak zabaldu izana begi onez ikusi dute EHBildun. Hala ere, uste dute "aukera hobea" bilatu behar zela: "Zerbitzu hori eskaintzea oso ondo ikusten dugu. Arazoari irtenbidea emateko hautua, ordea, ez zaigu hain egokia iruditzen. EHBildutik ohartarazi dute frontoia herriaren erdigunean kokapen ona duela iruditu arren, komunitara joateko eskailerak jaitsi beharko direla eta dauden barandak ez direla mugikortasunaren ikuspegitik egokienak". Jende nagusiarentzat eta mugikortasun arazoak dituztenentzat zailtasunak planteatzen dituela azpimarratu dute eta salatu dute ez dela aurreikusten frontoiaren irisgarritasuna hobetzeko egokitzapen lanik egitea. "Bi milioi eurotik gorako remanentea dauka Udalak. Oinarrizko zerbitzu hobeak izateko baliatzearen aldekoak gara EHBildun", jaso dute prentsa-oharrean.

## Mendaroko Udalak hiru peoi lanpostu eskainiko ditu

Hiru peoi lanpostu eskainiko ditu Mendaroko Udalak, Lanbide Euskal Enplegu Agentziarekin elkarlanean. Hautagaitzak aurkezteko azken eguna azaroaren 4a izango da, eta eskaerak, derrigorrez, Elgoibarko Lanbideren bulegoan bete beharko dira: 943 023 845. Interesatuak enplegu-eskatzailerak izan behar dute eta alta egotzeran egon behar dira Lanbiden. Era berean, Mendaron erroldatuta egon beharko dute eta euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko gai izan beharko dira (euskaraz hitz egitea baloratuko dute), bestelako betebeharrak hauek betetzeaz gain: ikasketa ziurtagarria izan beharko dute eta eraikuntza segurtasun formakuntza; B motako gidabaimena; eta eskuzko erremintak erabiltzen eta EPI edo norbera babesteko ekipamenduak erabiltzen ere jakin beharko dute. Lanpostu horietako bat 16 eta 30 urte arteko gazteei erreserbatuta egongo da, eta 12 hilabeterako lan kontratua eskainiko zaio, lanaldi osoa. Beste bi lanpostuetarako iraupen motzagoko kontratua eskainiko dute: hiru hilabete 1'erdikoa. Lanpostuetako bat, hala ere, 16 eta 30 urte arteko gazteei erreserbatuta dago. Eskaerak, derrigorrez, Elgoibarko Lanbideren bulegoan bete behar dira (943 023 845)

## Aitor Iriondo izendatu dute Aberri Kontseiluko Gipuzkoako ordezkari

Aitor Iriondo Unamunzaga elgoibartarra eta Amaia Larrañaga azkoitiarra izendatu dituzte Aberri Kontseiluko Gipuzkoako ordezkari, Gipuzkoako EGIk jakinarazi duenez. Orain arteko taldea berritu du EGIk, EAJren gazte erakundeak, Sabin Etxean.



## Bihar egingo dute iazko jaietan egitekoa zuten Gazta Txapelketa

Hileko azken zapa-tuko feriarean barruan egingo dute aurten Elgoibarko XXIX. Gazta Txapelketa, bihar, Kalegoen plazan. Kalamua elkar-teak antolatu ohi du txapelketa eta San Bartolome jaietan egin ohi dute, Baserritarren Egunean, baina azken bi



urteetan ez dute egin, pandemiagatik ez delako jairik izan. Aurten ere, Kalamua elkarteak antolatuko du eta 15 bat gaztagile batzea espero dute. Gaztagileek bihar bertan eman beharko dute izena eta epaimahaia honako hauek osatuko dute: Iosu Mugertzak, Jesus Artolak, Asier Landak, Bixi Irizarrek eta Pili Manterolak. Biharkoa irabazten duenak Gabon Zahar ferian egin ohi duten Urteko Gazta Onenaren lehiaketan parte hartzeko aukera izango du. Elgoibarko Gazta Txapelketa 2019an antolatu zuten azkenekoz eta Mausitxak irabazi zuen.

Azoka bera 9:00etan zabalduko dute eta 14:00ak bitartean baserriko produktu onenak izango dira erosgai Kalebarren plazan. Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa ere egingo dute, Kalebarren plazan.

## Gaur zortzi hasiko da Tripontzi ekimen gastronomikoa

Azaroaren 5etik 28ra bitartean egingo dute Debabarrena Tripontziak ekimen gastronomikoa, eta eskualdeko beste jatetxe batzuekin batera Belaustegik ere hartuko du parte. Sasoiko produktuez baliatuz, proposamen gastronomiko "iradokitzaile eta ezberdinak" eskainiko dituzte prezio berezietan: Tripontziak menuak 28 euro. Erreserba egitean Tripontziak Menua nahi dela adierazi beharko da, eta menutik kanpoko produktuak aparte ordainduko dira. Ondo jateaz gainera, sariak irabazteko aukera ere izango dute ekimenean parte hartzen dutenek. Horretarako partaidetza-kupoia eskatu beharko dute establezimenduan, eta harremanetarako datuekin bete beharko da hori, jatetxean bertan entregatzeko. Parte-hartzaileen artean sariak zozkatuko dituzte: Debabarreneko bertako produktuez osatutako bi sorta eder. Era berean, lau jatetxe desberdinetako menuak dastatzen dituztenek amantal eskusiboa jasoko dute. Aurten jatetxe hauek hartuko dute parte: Belaustegi(Elgoibar), Baratzte gourmet (Eibar), Kanala (Itziar, Deba), Mendiola (Ermua), Pikua (Mutriku), Salegi (Itziar, Deba) eta Txurruka (Soraluze).

## IIoT Gaitasun Zentroa aurkeztu dute eta urtero 200 profesional prestatuko dituzte bertan

IIoT Gaitasun Zentro berria aurkeztu zuten barikuan, IMHk eta Ikusik antolatuta, IMHn bertan egin zuten Industrial IoT Meeting jardunaldian. Jon Gurrutxaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Internazionalizazioko zuzendariak, Fernando Asenjo Ikusiko zuzendari komertzialak eta Ixaka Egurbide IMHko zuzendari kudeatzaileak parte hartu zuten besteak beste ekitaldian, eta azpimarratu zuten lehiakortasunari eta errentagarritasunari eustea produktuen eta prozesuen digitalizazioarekin lotu behar dutela enpresek. Luze hitz egin zuten digitalizazio industrialaren erronken eta aukeren inguruan, eta arrakasta izan duten zenbait enpresaren kasuak ere azaldu zituzten enpresariak eurek.



IIoT Gaitasun Zentroaren inguruko argibideak Ixaka Egurbidek eman zituen, IMHko zuzendari kudeatzaileak. Urtarrilean zabalduko dute eta Gauzen Internet industrialaren esparruan beren prestakuntza garatzeko aukera emango diete IMHko ikasleei eta industria-enpresei. Era berean, digitalizazio eta berrikuntza-prozesuetan aurrera egin nahi duten enpresei trebakuntzarako aukera ere emango diete. Profesionalak prestatuko dituzte, teknologia berriak makinetan aplikatzeko eta enpresetako produkzio-prozesuak hobetzeko. Enpresek azterketa praktikoak egin ahal izango dituzte benetako industria-ingurune batean, eta horri esker, haien digitalizazioan segurtasunez aurrera egin ahal izango dute. Bestalde, azaldu zuten zentroak eragin zuzena izango duela IMHko Ingeniaritza Dualeko, Fabrikazio Digitaleko Masterreko, eta Datuen Analitikako eta Fabrikazio Aditiboko Espezializazio-ondoko ikasleen prestakuntzan, bai eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Prestakuntzako ikasleenean ere. Guztira, 200 profesional baino gehiago prestatzea aurreikusten dute.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  943 744 112  688 634 044



**Basarte auzoan ez dituzte lorezaintza lanak**  
**Egiten:** "Basarte kaleko zuhaixkak oso luzeak eta zabalak daude, eta espaloiraino irteten dira. Ezinezkoa da espaloi horretatik eroso ibiltzea, eta umearen kotxearekin doazenentzako konplikatuagoa da egoera. Adarrak baztertu behar izaten ditugu pasatu ahal izateko, izan ere, espaloi erdi hartzen dute adar horiek. Udalari eskatu nahi diogu lorezaintza lanak gure auzoan ere egitea". Hirigintza Sailera jo dugu, eta arduradunak esan du lorezainak pasatuko direla beraien ibilbidearen barruan Basarte auzoko lanak egitera.



**Leihotik botatzen dute zaborra kalera:** "Gabriel Krutzelaegi kaleko zenbait bizilagunek leihotik kalera botatzen dituzte etxeko hondakinak. Lotsagarria da benetan. Ingurunea zikin-zikin eginda dago, eta horren ondorioz, arratoiak ere ibiltzen dira. Errespetua eskatzen dugu, elkarbizitzarako gutxieneko errespetua".



**Maalako garajeetarako aldapan jendeak**  
**Txiza egiten du asteburuetan:** "Bariku eta zapatuetan jendeak txiza egiten du Maalako garajeetako aldapan, eta batzuetan botaka ere bai. Txiza garaje barruraino sartzen da, eta sortzen den kiratsa jasanezina da. Askotan, asteazkenara arte ez du inork garbitzen ingurune hori, eta dena zikin-zikin egoten da. Maala inguruan ume pila bat ibiltzen da jolasten, eta ez zaigu iruditzen ingurune hori horrela edukitzea segurua denik. Bertako bizilagunen lekuan jar daitezela eskatu nahi nieke txiza egitera joaten diren horiei".



**Sallobenterako errepidea asfaltatu dute:** "Sallobenterako errepide guztia konpondu dute, eta ederki gelditu da. Eskerrik asko!"



## ► MIREN ROS HEZITZAILEA ETA BIDELAGUN PROIEKTUAREN SORTZAILEA

Ama, hezitzailea eta Bidelagun proiektuaren sortzailea da Miren Ros (Eibar, 1975), bai eta Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan sortutako 'Gure aukera, guk 16' taldeko kidea ere. Arno guraso elkarteak eta ikastolak eskatuta urrian Mendaron izan da sakelako telefonoen erabileraren inguruko formazio-saioak ematen. Urriaren 4an eta 5ean LH4tik LH6ra arteko ikasleekin bildu zen ikastolan eta urriaren 14an gurasoentzako saioa eskaini zuen udaletxean.

- AINARA ARGOITIA -

# “Atzeratu dezagun ahal den gehien seme-alabei sakelakoa ematea”

### ◆ Azalduguzu: zer da 'Gure aukera, guk 16'?

Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan sortutako ekimena da. Hilean behin guraso eskolak ematen ditut han Bidelagunetik eta gai asko lantzen ditugu, tartean hau. Halako saio baten ondoren elkartu ginen guraso talde bat, kezkatuta geundelako gure seme-alabek sakelakoez egiten zuten erabileraz. Eta talde horretan ama gisa parte hartzen dut orain, baina profesional gisa ere ari naiz gai hau lantzen, herriz herri, eskolaz eskola.

### ◆ Zergatik 16?

Hala proposatzen dutelako adituek. Silicon Valleyko aditu horiek guztiek ez diete euren seme-alabei inolako pantailarik eman nahi Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasi arte. Eta askok telefono propiorik ere ez diete erosten 16 urte bete arte. Ikertuta dago kontua. Neurologoek esaten digute kortex prefrontal hori ez dela guztiz ixten 25 urte bete arte, alegia nerabezaroan burmuina

berreraikitzen ari dela eta inpulsoen kontrola, planifikazioa... erakitzen ari direnez, zaila zaiela inpulso askori eustea. Zer gertatzen zaigu guri whatsapp joki entzuten dugunean? Askotan ezin izaten diogu eutsi begiratu gabe, ezta? Ba nerabeei ia ezinezkoa zaie, euren burmuina ez dagoelako prestatua. Ikerketa askok diote soinu horiek edo *like* horiek jasotzen ditugunean dopamina sortzen dela gure burmuinean. Hau da, kokainaren efektu berbera sortzen dela eta horrek menpekotasuna dakarrela. Eta horren eragina ari gara igartzen. Haur Hezkuntzako irakasleek eurek ere esaten dute gero eta zailagoa zaiela ipuin bat kontatzea, haurrei kosta egiten zaielako arreta mantentzea.

### ◆ Izenburua irakurrita deseroso sentituko denik ere izango da, ala?

Bai. Aitortzen dugu nahita jarri geniola izenburu zirikatzailea egitasmoari. 16 urtera arte ez dugu gure seme-alabek telefonorik



izaterik nahi. Ez, ez dugu nahi, baina horra iritsi aurretik gauza asko daude egiteko eta horietan jarri nahiko genuke arreta. Iruditzen zaigu kontzientziazio falta handia dagoela familietan eta gehiago hitz egin beharko genukeela etxeetan gai honen inguruan. Pedagogia egitea falta da, baina abiapuntua zehaztu behar genuen eta horixe erabaki genuen: atzeratu dezagun ahal den gehien seme-alabei sakelakoa ematea.

#### ♦ Zer lortu duzue bi urte hauetan?

Gauza politak. Gaur, Salvatore Mitxelena DBH 2n dauden ikasleetatik hamahiruk oraindik ez dute sakelakorik. Eta DBH1en, hamabostek bakarrik izango dute, eta guztira 72 bat dira. Kontzientziazio lan horri esker, gainera, ikasleak eurak ere konturatu dira beharbada telefonoa horren goiz eskuratzea ez dela hain *guaia*. Baina ekimen hau ez da gure eskolara mugatzen; ari da beste herri eta eskola batzuetara zabaltzen.

#### ♦ LH4, LH5 eta LH6ko ikasleekin bildu zara Mendaron. Zer jaso duzu haiengandik?

Egunero-egunero erabiltzen dituztela teknologia hauek, eta kasu batzuetan, gehiegi. Nabarmena da, gainera. Aurkezpeneko une batean bideo-joko ezberdinak aurkeztu nituen eta haur asko zoratu egin ziren ikusteaz batera. Nabaria zen haiengan adrenalina askatze hori. Egia da adin txikiagoetan, LH4n dauden ikasleen kasuan esaterako, gurasoek mugatuago dietela telefonoen eta pantailadun bestelako gailuen erabilera, baina lasaitze bat etortzen da gero familietan, eta LH5eko eta LH6ko ikasleek libreago erabiltzen dituzte telefonoak eta besteak.

#### ♦ 16 urtera arte sakelakorik ez. Haur eta nerabe askok ez dute ulertuko. Eta gurasoek?

Guraso askok ere ez dute ulertzen; hori hala da. Baina guk geuk ez badugu hausnartzen nola erabiltzen ditugun telefonoak eta zer harreman daukagun haiekin eta bestelako pantailekin, nekez jabetuko gara zer nolako erreminta boteretsuak eta arriskuak ematen ari gatzazkien gure seme-alabei. Gurasoengan eta familiengan eragitea da hemen gakoa, gure esku dagoelako, askotan konturatzen ez bagara ere. Askotan, gainera, guk uste baino errazago ulertzen dute gure seme-alabek mezua. Gaur egun, askori irudituko zaie 16 urtera arte atzeratzea gehiegi dela, baina lortzen badugu 12 urterekin erosi beharrean 14 urterekin erostea lorpen ikaragarria izango da. Gure seme-alabek ikusten baldin badute beren ingurukoek ez dutela, eskatu ere ez dute egingo. Guk, gura-

sook, sortzen diegu behar hori, eta horrek ematen digu indarra pentsatzeko giltza ere geuk dugula.

#### ♦ Etxean asteburu bat telefonorik gabe pasatzeko proposatzea eskatu diezu ikasleei gelan. Zigor traza hartuko zioten batzuek.

Nik ez diet zigor bezala planteatzen. Haurrei eurei ere esan nien guraso askok eskertu ere egingo zutela esperimendu hori. Eta gaur, horixe galdetuko diet gurasoei: ea proban jarri duten esperimendua eta nola sentitu diren. Nik beti gomendatzen dut gutxienez asteburuak eta oporraldiak pantailarik piztu gabe pasatzea. Ez gara ohartzen, baina gailu hauek sekulako denbora pila kentzen digute. Eta hori baino larriagoa dena: ikustekoa da pantailen erabilerak zenbat eskasten duen familia-giroa eta etxeen arteko harremana. Ikaragarria da: kentzen duzu telefonoa ekuazio horretatik eta harremana beste bat da! Ez sinistekoa da.

#### ♦ Zergatik erosten dizkiegu telefonoak gure seme-alabei? Zer adinetan erosten dizkiegu?

Gu geu lasaiago egoteko eta gure seme-alabak bakarrik geldi ez daitezen, ez dadin gurea izan telefonoa eskuratuko duen azkena lagunartean. Hori da esaten duguna, baina bada aitortzen ez dugun arrazoi bat ere: unero seme-alabak non dauden kontrolatu nahi dugula. Beldurraren kulturaren bizi gara eta dena arriskua ikusten dugu. Ikasleekin bildu naizen egunotan, baina, galdetu diet honi buruz ere. "Mendaron zerbait gertatuz gero, zer? Eta ez zuten arazorik ikusten. 'Mendaron denok ezagutzen dugu elkar' esan zuten, iradokiz topatuko luketela zeinek lagundu. Mendaro herri txikia da, eta ez dute telefonorik behar. Hala onartzen dute eurek ere, premiarik ez dutela, gehienek nahi duten arren. Askok, gainera, badute smartwacha, deitzeko balio duen erlojua. Gurasoekin komunikatzeko nahikoa

da hori, baina adierazgarria da ikustea zein gutxi erabiltzen duten deitzeko.

#### ♦ Zertarako erabiltzen dituzte telefonoak gaztetxoek?

Oso kuriozoso da. Ez dute erabiltzen gurasoei deitzeko. LH4n eta LH5en, beharbada, bai, baina hortik gorakoek sekula ez dute erabiltzen gurasoei deitzeko. Sare sozialetan ibiltzeko eta jolasteko erabiltzen dituzte.

#### ♦ Nola ematen diegu telefonoa?

Askotan, oparizat, baina nik ez nieke sekula telefono bat oparitan emango. Opariak ez

*"Gu geu lasaiago egoteko eta bakarrik gelditu ez daitezen erosten dizkiegu sakelakoak"*



dira baldintzapean ematen. Aldiz, gure seme-alabei telefonoak erosten dizkiegunean, sarri gurasoen kontrolerako aplikazioen bat instalatzen diegu egiten dutena zaintzeko, edota bestela, baldintzak jartzen dizkiegu: ez erabili ordu honetatik aurrera, ez deskargatu halakorik... Esango nuke aurrez lanketarik egin gabe ematen zaiela sarri telefonoa. Gurasoentzako erronka handia da hau, besteak beste guk ez dugulako ezagutu mundu hau gure gazte garaian. Guk geuk nola erabiltzen dugu, esaterako, whatsapp? Gogoeta handia daukagu egiteko. Zenbatetan gertatzen zaigu soinuua entzun eta berehala jaiki beharra zer den ikustera? Zenbatetan esan diegu gure arreta behar duen umeari itxaroteko whatsappari begira gaudelako?

♦ **‘Ez diot edonola eman telefonoa. Guraso-kontrola jarri diot’ pentsatuko du gurasoak.**

Geu lasaiago gelditzeko instalatzen dizkiegu aplikazio horiek, baina nik garbi daukat hori ez dela bidea, gure seme-alabek beti topatuko dituztelako zirrikituak ihes egiteko. Kontrola ez da bidea; komunikazioa eta pedagogia baizik, bai telefonoa eman aurretik eta baita eman ondoren ere. Gai-near egotea eskatzen du haurrei telefonoa emateak eta nekagarria da. Guraso askok galdetzen didate ea seme-alaben telefonoko mezuak irakurtzea ez ote den haien intimitatea urratzea, baina nik esango nuke egin beharreko gogoeta beste bat dela: azalpenik eman gabe hain tresna potentea ematen badiogu, gainean egon beharra daukagu gero zer erabilera egiten duen ikusteko?

♦ **Nerabea, purrustaka, eta gurasook sakelakorik gabe bizi ezin garaela sinesten hasita. Guraso elkartean bertan ere sortu da eztabaida: Nola ukatuko diegu sakelakoa gu geu uneoro hari begira ikusten gaituztenean?**

Oso barneratuta daukagu arau batzuk, baina gero eskandalagarria egiten zaigu telefonoa eskuratzeko gutxienez 16 urte behar direla esatea, bai eta onartzea ere. Gidabaimena ateratzeko 18 urte behar dira adibidez, eta inork ez du zalantzan jartzen. Zer gertatzen da, baina, beste gai honetan? Ez dagoela horren arautua. Whatsapp, adibidez, 16 urtez gorakoentzako aplikazioa da, baina gaur egun edonork zabaldu dezake kontua eta ez da ezer pasatzen. Are, gurasook ere ez diegu garrantzirik ematen 16 urtez azpiko batek whatsapp izateari. Gauza bera gertatzen da horren zabalduak dauden bideo-jokoekin (Fortnite, Brawl Stars...), baina ez dugu ahaztu behar adinaren muga zerbaitegatik zehazten dutela. Familiak erabakiko dute kasu egin ala ez, baina egia da ohartarazpen horiek lagungarri zaizkigula.

♦ **Bakarka ezin da itsaso baten kontra egin. Zer proposatzen duzu?**

Kontziente gara zein den errealitatea eta ez da erraza korrontearen kontra igeri egitea, baina garbi izan behar dugu

gurasoon esku dagoen kontua dela. Gurasook indarra egitea da hemen irtenbide bakarra. Batetik, kontzientzia zioa landu behar da, gurasook konturatzeko telefonoa zenbat eta beranduago eman hobeto dela, eta bestetik, komeni da gurasoak elkartu eta hitz egitea, adosteko noiz eta nola eman telefonoak seme-alabei. Ez diot nik 16 urtera arte atzeratzea adostu behar dugunik, kontuz! Diodana da elkartu behar gara, ahal den beste atzeratzeko egun hori. Hartu ditzakegu konpromiso txikiak taldean. Irabazten dugun denbora dena onerako izango da. Beste gai askorekin egiten dugu hori. Etxera itzultzeko orduaz hitz egiten dugun bezala, hitz egin dezagun telefonoak noiz eta nola emateaz ere. Oso ulergarria baita, gurasoek nahi ez izatea euren seme-alaba azkena izatea telefonoa eskuratzen, argi dagoelako gaur egungo gazteak telefono bidez harremantzen direla eta hori kentzeak

min handia egiten diela. Gauza ez da gazteengan trauma bat sortzea ere!. Baina ikusi dugu, askotan, etxeko bakardade horretan, azkarregi ematen dugula gurasook amore. Bakoitzak bere etxean gerra hori izan beharrean, bilatu behar dugu bidea denon artean indar handiagoa egiteko. Eta beste guraso batzuekin elkartzean konturatu gara uste baino jende gehiagok pentsatzen duela guk bezala.

♦ **Norberak norberarenari erosi ezta ere, arazo bihur daiteke. Zer egin daiteke halakoetan?**

Halakoetan iruditzen zait tutoreen lana oso garrantzitsua dela. Adiskidetasuna landu behar da gelan, ezin delako lagun bat baztertu sakelakorik ez duelako. Lagun onak direnak beti izango dira lagun onak, izan sakelakoa ala ez. Gertatzen da gaur egun ez daukagula komunitatea zaintzeko kultura hori eta askotan ez diegu erreparatzen besteengan eragin dezakegun minari. Sakelakorik gabe dagoen ikaslearen gurasoei esango nieke, bestetik, ez tenkatzeko soka; beren seme-alaba lotsatia bada edo zailtasunak baldin badauzka harremantzeko eta taldeko bakarra bada sakelako barik, beharbada ez da aukera onena sakelakorik gabe uztea.

♦ **Izango da seme-alabei telefonoa erosi eta damutu denik. Behin eman denean, baina, zer?**

Haurrak DBH1en dituzten guraso talde batekin batu naiz asteon Donostian. Aurten eman dizkiete sakelakoak euren seme-alabei eta oso kezkatuta eta beldurtuta ere badaude egiten ari diren erabilera ikusita. Eta haiei ere esan diet: bakarit ez zaizuela gustatuko eta zuen seme-alabei gutxiago, baina ez da inolako astakeria behin emandakoa kentzea. 40 guraso ziren kezka agertu zutenak; zergatik ez batu eta sakelakoak kentzea adostu? Ulertzen dut, hala ere, oso zaila dela atzera egitea. Ezin bada, gutxienez neurri batzuk adostu beharko genituzke. Kontua ez da inor behartzea, baizik eta berdin pentsatzen dugun gurasoak batu eta hitz egitea.

*“Kontua ez da inor behartzea, baizik eta berdin pentsatzen dugun gurasoak batu eta hitz egitea”*






"2021eko Mendaroko kale margo lehiaketako irabazlea"

Jason  
Felguera  
Andrei,  
6 urte,  
Elgoibar



"Izurdea natural dago"

Unax  
Olaso  
Bastida,  
7 urte,  
Elgoibar



# Haritzen aritzen

**Antzinako ogibideak erakusteko jardunaldia antolatu du Makina Erremintaren Museoak eta oraingoan artilea eskuz nola egiten den ezagutzeko aukera eskainiko dute. Lasturko Goikola baserriko Karmen Esnaolak 40 bat urte daramatza artilea eskuz ekoizten, eta horrez gain, elementu naturalak erabiliz tindatzen du artilea. Naturarekin harremanetan bizi da, natura maite du eta naturak ematen dituen landareei ahalik eta probetxu handiena ateratzen ahalegitzen da. Azaroaren 6an etorriko da Elgoibarrera. Azaroaren 5a izango da izena emateko azken eguna. Horretarako, [museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) helbide elektronikora idatzi edo 943 748 456 telefonora deitu daiteke.**

- AINHOA ANDONEGI -

Jaiotzez tolosarra da Karmen Esnaola, baina orain dela 32 bat urtetik hona Lasturko Goikola baserrian bizi da, Geoparkearen erdi-erdian. Goikola baserria burdinola izan zen XIV. mendean, baina beraiek iritsi zirenean dena hondatuta aurkitu zuten. Baserria berritu, eta zati bat bizitokirako atondu zuten, eta bestea, nekazalaxe bihurtu zuten. Bost logela eta apartamentu bat dituzte alokatzeko, eta egonaldiaz gain, jarduerak eta esperientziak ere eskaintzen dituzte bertan.

Karmen Esnaolak umetatik bizi du natura, eta beti bizi izan da naturari lotuta. Orain dela 40 urte Inglaterrara joan zen senarrarekin nekazaritza biodinamikoa ikastera, alor horretan hemen baino aurreratuago zeudelako garai hartan han. Urtebetez bizi izan ziren han, ikasten eta lanean, eta esperientziak beteriko zakua, eta tindaketa naturalari buruzko liburu bat ekarri zituen bueltan etxera. Nafarroan bizitzen jarri ziren lehenik, eta Goikolara iritsi ziren ondoren. Ardiak jarri zituzten etxean, eta hala hasi ziren Idiazabal gazta ekoizten eta artilea egiten. 25 urtez jardun ziren gazta egiten, eta gazta txapelketetan ere hartu izan dute parte, baina senarrak erretiroa hartu zenean gazta egiteari utzi zioten, eta gaur egun nekazalaxeari eta artilea egiteari emanda daude. Ehungintza tailer txiki bat dauka Goikola baserriaren hegalean, eta hantxe ekoizten du artilea Esnaolak. Artilea modu mekanikoan ekoizten da batez ere gaur egun, baina berak antzinako modura egiten du, dena eskuz. Ardiei ilea moztu behar zaie lehenengo, eta ondoren ilea kardatu egin behar da: "Kardagailu polit bat daukat, 100 urte baino gehiagokoa". Ondoren, ilea orraztu behar da, eta horretarako beste manibela moduko bat erabiltzen du, eta orraztu ostean ateratzen du haria. Ardi latxa erabiltzen du batez ere, etxeko ardia duelako, baina llama edo alpakaren ilea erabiltzea ere gustatzen zaio tarteka, eta baita merina ardiarena ere.



## Tindaketa naturala

Artilea egiteaz gain, tindatu ere berak egiten du, eskuz eta modu naturalean gainera. Natura aberatsa da, eta gauza jakina da naturak ematen dituen osagaiak erabilera asko izaten dituztela. Sendabelarrak dira asko, eta etxe askotan erabili izan dira historikoki, eta botika asko ere egiten dira naturako landareekin. Karmen Esnaolak beste erabilera bat aurkitu die, baina, naturako osagaiak: tinda naturalak egiten ditu, berak ekoiztutako artileari kolorea emateko. Ondo ezagutzen ditu osagaiak, eta badaki kolore bakoitza lortzeko zer erabili behar duen. Errezeta liburu dauka, eta hango pausoak jarraituz lortzen ditu gustuko koloreak. Besteak beste, tipula edo pikuren azalak, intxaur oskolak, azenarioaren hostoak, erremolatxa, kotxinilla eta asunak erabiltzen ditu, eta bakoitzak tonu desberdina ematen dio artileari: "Tipula azalak kolore hori oso polita ematen du adibidez, eta kotxinillarekin granate itxurako tonuak lortzen ditut". Kotxinilla kanariar uharteetako intsektu bat da eta handik erosten du, baina gainerako osagaiak etxetik metro gutxira eskuratzen ditu. Goikolako sukaldean, beraz, oso ohikoa da jakiez gain, lapikoetan koloreak sukaldatzea.

Artilea egin eta tindatu ondoren, erabiltzeko prest egoten da. "Tapizak egiten ditut batez ere, ardi latxaren ilea latza delako eta jertseak egiteko ez duelako balio, asko pikatzen du". Artilea ekoizten gozatzen du Esnaolak, baina etxerako ekoizten du batez ere, eskuz eginiko lana saltzeko garestiegia delako. Zale-



tasuna du, eta gozatzeko egiten du, baina azkenaldi honetan, beste zaletasun bat ere gehitu dio artilea ekoizteari: estanzazio botanikoa. Joan zen asteburuan ikastaroa egin zuten Goikolan bertan. Loreak, landareak, hostoak eta bestelakoak oihalean estanzatzean datza: "Lortzen diren emaitzak zoragarriak dira". Baserrian bizitzeak aukera handiak eskaintzen dizkio.

## Azaroaren 6an Erreminta Makinaren Museoa

Goikola baserrian egiten ditu erakustaldiak Esnaolak, eta garai batean eskola-umeak ere joaten ziren artilea egiteko prozesua ezagutzera: "Izugarri gozaten zuten, erakustaldi praktikoa egiten genuelako, eta umeek beraien ere tapizak egiten zituztelako". Orain tarteka eskoletara joaten da, berak ere ume-tako oroitzapen politak dituelako eta horrelako erakustaldiak oso aberasgarriak iruditzen zaizkielako: "Mojen eskola batean ikasi nuen nik, baina tarteka joaten ginen papertegi bat ikustera, edo jaboia nola egiten zuten ezagutzera eta prozesu horiek oso interesgarriak direla uste dut".

Azaroaren 6an Elgoibarrera ekarriko du bere makinaria guztia eta zuzenean erakutsiko du artilea nola egiten den. Era berean, hainbat gomendio ere emango ditu norberak etxean artilearekin lan egin dezan. "Jendea animatu nahi nuke praktikatzen. Erlaxatu egiten du, sormena lantzen da eta pantailak albo batera lagatzeko balio du".

## ARTILEA EGITEKO PROZESUA PAUSOZ PAUSO

- ◆ **Ardiei ilea moztu:** Ardi latxa erabiltzen dute, "etxeke ardia" delako. Lehenengo eta behin, ardiei ilea moztu behar zaie. Ilea moztearen prozesuari eskilatzea esaten zaio.
- ◆ **Garbitu:** Ur beroarekin garbitu behar da egindako artile xehea, hondakin organiko guztiak kentzeko.
- ◆ **Kardatu:** Moztutako artilearen zatiak orraztu behar dira ondoren, eta testura leuna eta pisu gutxikoa lortu arte kardatu behar da.
- ◆ **Ardazketa:** Ardatzarekin eta goruarekin (Gorua, ehunak iruteko tresna bat da), artile kardatuaren zuntzak ateratzen dira, nahi den lodierako hari bat lortu arte. Irundako artilea buelta berdinetan bil daiteke mataza bat sortzeko, eta hura ere urarekin eta xaboiarekin garbitu behar da.
- ◆ **Tindatu:** Produktu naturalak erabiliz tindatzen da. Artilea ur irakinetan egosi behar da ordubetez, eta kolorea finkatzeko gatza, ozipina, kolore finkagarria edo kobre-isurketa bezalako substantziak erabiltzen dira. Horrela, forma eta kolore desberdinetako produktuak lor daitezke.
- ◆ **Lehortu:** Ondo aklaratu behar da artilea, eta aklaratzerakoan kolore apur bat joaten zaio, baina lehortu ondoren ez du kolore gehiago galtzen. Itzaletan lehortu behar da.



**Eztula eta dirua ezin dira ezkutau:** Nahi izanda ere, ezkutatu ezinekoak dira bi horiek: beti geratzen dira agerian, lehenago edo geroago.

## Arimen Gaua ospatuko dute asteburuan Elgoibarren eta Mendaron

Urriaren 31 da Arimen Gaua, eta egun horren harira, hainbat ekintza egingo dituzte asteburuan Elgoibarren eta Mendaron. Ameriketako Halloween festarekin lotzen dute askok egun hau, baina arimen gauak tradizio luzea dauka Euskal Herrian ere. 1950eko hamarkadara arte herri askotan bizirik iraun zuen eta ohikoa zen kalabazak edo arbiak hustu eta aurpegi itxura ematea. Barruan kandela txiki bat jartzen zioten, bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimek bidea erakusteko. Garai hartako ohitura horiek ezagutzera emateko helburuarekin batu dira hainbat eragile Elgoibarren,



eta aste osoan zehar aritu dira ume zein gazteekin ekintzak egiten. 88 bat lagunek hartu dute parte ekintzetan, eta besteak beste, mozorroak prestatu dituzte, domekan egingo duten eskerako. 'Ziri edo sari' eske kalejira egingo dute kalean zehar, eta hainbat establezimendutan arituko dira kantuan edo esaldiak errezitatzen, goxokien truke. 20:00etan egingo dute amaierako ekitaldia Maalako parkean, eta horretarako ume bakoitzak kandela bat eraman beharko du, bakoitzak bere beldur bat erreko duelako. Gaur arratsaldean dantza parte-hartzaileak izango dira Kalegoen plazan Haritz dantza taldekoen eskutik, eta bihar goizean familientzako gaztaina eta mozorro tailerra egingo dute Kultur Etxe parean. Elgoibarko Izarra, Udala, udal liburutegia, udal ludoteka, udal gaztelekua, Haritz dantza taldea eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatu dute programazio guztia.

Mendaron, bestalde Udal Ludotekak eta Gaztelekuak eta Arno Guraso Elkarteak antolatu dituzte ekintzak. Astean zehar jardun dira Gaztelekua eta ludoteka apaintzen, eta gaur mozorro desfilea egingo dute ludotekan. Bihar, gaztelekuan mozorro lehiaketa izango dute eta beldurrezko *Eliminado* filma ikusiko dute. Domekan, berriz, Arno Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta, umeentzako jolasak egingo dituzte 18:00etatik aurrera frontoian. 19:00etan haizulo beldurgarria zabalduko dute Garagartzako elizpean.

### Gazteko maketa lehiaketako finalistak artean da Muzak taldea



Programaturik diskoko hiru kantu aurkeztu ditu Muzak rock taldeak Gazteko maketa lehiaketara, eta hoguei finalistak artean sartu da. Hoguei finalistetatik lau pasatuko dira hurrengo fasera; hiru epaimahaiak aukeratu dituzte eta laugarrena herritarrek, bozketa bitartez. Botoa emateko epea azaroaren 4an amaituko da. Ruben Irigoien elgoibartarra da taldeko bateria jolea, eta Joanes Iñurrieta (Soraluze) eta Aitor Sagarmendi (Mutriku) ditu taldekideak. Botoa emateko ondorengo webgunean sartu behar da: [www.eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa/finalistak/osoan/8401076/muzak/](http://www.eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa/finalistak/osoan/8401076/muzak/)

### Erik eta Win' antzerkia emango dute gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian


Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariek Erik eta Win antzerkia ekarriko dute Elgoibarrera datorren barikuan. Bikoteek euren baitan dituzten harreman-tripak hausnartzen dituen ikuskizuna da, eta edozein izan daiteke Erik edo Win, eta edonorena izan daiteke bi hauek duten harremana. Harreman sinbiotiko baten barruko aldea erakutsiko dute, guztioi ezagunak egingo zaizkigun gakoak, bertsoa, antzerkia, musika eta umorea uztartzuz. 20:30ean izango da emanaldia.





## Eusle egitasmoa jarriko dute martxan herriko kuadrilletan eta Mintzapraktika proiektua abiatzeko bidea ere egingo dute Mendaron


Euskararen erabilera sustatzeko ahaleginetan ari dira Mendaron ere, eta euskal hiztunengan eragiteko hainbat ekintza antolatu dituzte Arno Guraso Elkarteak, UEMAk eta Udalak elkarlanean, azarorako. Euskararen kale erabilera neurtzen jardun dira herriko zenbait euskaltzale eta UEMAko teknikariak azaroaren 4an jakinaraziko dituzte. Horren harira, baina, lehiaketa bat jarri dute martxan. Mendaro herri euskalduna ote den galdetu diete herritarrei; zehazki, kale erabilerako datu orokorra zenbatekoa den ehunekoetan. Txartelak herriko denda eta tabernetan jarri dituzte eskuragai eta azaroaren 3a arteko epea egongo da txartelak entregatzeko. Bideo bat ere zabaldu dute lehiaketa iragartzeko, herrian egindako kale inkestan jasotako iritziekin. Bestalde, herriko lau kuadrillatan Eusle egitasmoa jarriko dute martxan azaroaren 15etik abenduaren 15era, eta ondoren, balorazio bat egingo dute hizkuntza ohituretan eragin ote den jakiteko. Balio izan duela uste bada, herriko beste hainbat kuadrillatan zabaltzeko aukera aztertuko dute. Era berean, Mintzapraktika proiektua ere jarri nahi dute martxan. Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen duen egitasmoa da Mintzapraktika, eta izen ezberdinez ezagutzen da. Elgoibarren, esaterako, Tertuliak programa esaten diogu. Azaroaren 4an aurkeztuko dituzte Eusle eta Mintzapraktika proiektuak, eta lehiaketako irabazleari saria emateko ere baliatuko dute ekitaldia.



### Jairo Berbelen 'Miscere' film laburra Eibarko Asier Errasti Film Laburren Jaialdirako aukeratu dute

Hainbat tokitako zinegileek aurkeztu dituzten 52 lan aukeratu dituzte Asier Errasti Film Laburren Jaialdirako, eta aukeratutako lanen artean dago Jairo Berbel elgoibartarrak eta Juanma Cano eibartarrak zuzendutako *Miscere* izenekoak. Azaroaren 8tik 13ra egingo dute Eibarren XXII. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia, Plano Corto elkarteak antolatuta, eta sail ofizialerako aukeratutako 52 laburmetraiak astelehenean barikura bitartean ikusi ahal izango dira Coliseo antzokian, egunero, 20:00etan. Sarrera doan izango da. Sari banaketa, berriz, larunbatean, azaroaren 13an egingo dute eta lan onenak Javier Agirresarobe Saria eskuratuko du.



Berbelek azaldu du bi direla filmeko protagonista nagusiak: *Miscere* eta *Alex*, eta irratiko elkarrizketa baten inguruan harimuntzen dela istorioa. 18 minutuko film laburra da eta helburu bat du: migratzaileek bizi duten zorigaitzarekin eta minarekin enpatia sentitzea. Aktoreen zerrenda, berriz, honako hauek osatzen dute: Induara Cruz, Juanma Cano, Miguel Moyano, Lucia Moyano, Noémie Kilembe, Cristian Ela, Eva Pequerul, Sara Arrizabalaga, Igor Baroja eta Alaitz Izaga.



### Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko eta etziko



Pintxo lehiaketa antolatu du Udalak biharko eta etziko. Hiru tabernak hartuko dute parte (Lagun Betikoak, Uztargik eta Aitzbeltzek) eta 1,5 euroan salduko dituzte pintxoak: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Herritarrek pintxo onena bozkatzeko aukera izango dute, eta parte hartzen duten guztien artean 50 euroko txartel zozkatuko dituzte lehiaketa irabazten duen tabernan gastatzeko. Eta domekan, Rockaleanekoak kalejiran ibiliko dira, 13:00etatik aurrera.



## Utahn jokatu den Munduko triatloi txapelketan lehiatzeko plaza lortu du Ioseba Tamayok Portugalen


Estoril hiririk gertu dagoen Cascais herrian jokatu zuten Ironman 70.3 Cascais triatloia asteburuan, Portugalen. Bi distantzian lehiatzeko aukera zegoen: ironman erdiko distantzian (1.9km igeri, 90km bizileta eta 21km korrika) edo ironman distantzian (3.8km igeri, 180km bizikleta eta 42,2km korrika). Lehenengoan lehiatu zen Ioseba Tamayo elgoibartarra, Jaz Eibar Triatloi Taldeko kidea. Ia bi kilometroko distantzia 29 minutu eta 20 segundoan osatu zuen igerian, bizikletako 90 kilometroak 2:30:06ko denboran egin zituen, eta korrika egin beharreko maratoni erdia 1:24:55ko denboran. Hala, 4:33:55ko denborarekin amaitu zuen proba, egindako lanarekin "oso gustura" eta sentsazio onekin. Tamayo laugarren postuan sailkatu zen bere adin tartekoen artean, 30 eta 34 urte artekoen mailan, eta 49. postuan sailkapen nagusian; eta, baieztatu diote plaza bat izango duela Ironman 70.3 World Championship txapelketan. 2022ko urriaren 28an jokatu da St. Georgen (Utah estatua, AEB).

## Zartako arkulariek osatu dute podiuma Gipuzkoako Txapelketan



Gipuzkoako 3D arku-tiro txapelketaren 22. ekitaldia jokatu zuten urriaren 17an, Ordizian, eta Zarta Arkulari taldeko hiru kidek eskuratu zituzten lehen hiru postuak, arku instintiboen kategorian. Hugo Sierra gailendu zen, Javier Varonak egin zuen bigarren eta Iosu Arrillagak hirugarren. Zartako presidente Sergio Fernandezek nabarmendu du lehen aldia dela talde bereko hiru arkulari podiumera igoten direla eta federazioak zoriondu egin dituela lortutako emaitzengatik. Gipuzkoako 3D Ligako hirugarren jardunaldia ere bazen Ordiziakoa eta hor Javier Varona izan da sailkapen nagusiko onena. Era berean, Rafael Seguik lehen postua lortu zuen Ordizian, longbow kategorian.

## Maisua eta ikaslea Gipuzkoako judo txapelkun



Senior mailako Gipuzkoako Judo txapelketa jokatu zuten joan den urriaren 24an, Errenteriako Fanderia kiroldegian. Bi judoka elgoibartar lehiatu ziren eta biek lortu zituzten urrezko dominak. Egoitz Morak 100 kiloz gorako kategoriako tituloa lortu zuen, eta 60 kiloz azpiko kategorian gailendu zen David Mendazona. Usurbilgo Dojo Arrillagan entrenatzen du gaur egun Mendazonak, baina Egoitz Mora izan zuen judoko estreinako maisua, 8 urte zituenetik, eta hori dela-eta berezia izan da maisuak eta ikasleak lortu berri duten Gipuzkoako titulu hau. Euskadiko txapelketa izango da bientzako hurrengo erronka.



## Mikel Bergua pilotari gazteak Jon Alberdi pilotari profesionalak gidatutako saioetan hartuko du parte

Gipuzkoako Esku Pilota Federazioak (GEPF) zortzigarren aldiz antolatu du pilotari gaztetxoei entrenamendu tekniko pertsonalizatua eskaintzea helburu duen egitasmoa. Gipuzkoa osoko 53 pilotari hautatu dituzte teknifikazio saioetan parte hartzeko, eta horien artean da Mikel Bergua, Lagunak Pilota Eskolako kidea. Gipuzkoako hemezortzi klubetako 72 pilotarik eman dute izena 2021-2022 denboraldiko teknifikazio saioetarako. Hautaketa entrenamenduen ondoren, 53 hautatu dituzte teknifikazioan parte hartzeko, hemezortzi kadete mailakoak eta 35 infantil mailakoak. Hautatutako infantil mailako pilotarien artean da Mikel Bergua elgoibartarra. Aurrez bere neba zaharragoak, Alexek, edo Iker Izagirrek egin zuten moduan, federazioaren teknifikazio entrenamenduetan parte hartzeko aukera izango du. Eskualdeka antolatu dituzte entrenamenduak, eta Urola eta Deba bailaretako hamabi pilotariak Jon Alberdi pilotari profesional azpeitiarrak gidatuko dituen saioetan arituko dira. Urrestillako frontoian egingo dituzte entrenamenduak, eguaztenero, ekainera bitartean.



## Tenis eta padel pistak debalde, abonatuentzat



2022ko ordenantza fiskaletan jasotzen den moduan, 2022ko urtarriletik aurrera Udal Kirol Patronatuko bazkideek doan erabili ahal izango dituzte Mintxetako tenis eta padel pistak. Pisten erreserbak orain arte bezala egin beharko dira, baina bazkideek ez dute pistak erabiltzeagatik ordaindu beharko. Aldiz, bazkide ez direnek 4,75 euro beharko dute, orduko eta pertsonako. Era berean, patronatuko abonatuak Mintxetako eta Olaizagako muskulazio gelak doan erabili ditzaketela gogora ekarri dute Udal Kirol Patronatuko arduradunek.

## Alpinismoko eta Eskaladako film onenak ekarriko ditu Morkaikok Herriko Antzokira

Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa (UMEZ) antolatzen du urtero Morkaikoko Mendizale Elkarteak urte sasoi honetan. Iazko moduan, aurtengorako ere ez dute hitzaldirik antolatu, eta Bilboko Mendi Film Festival jaialdi entzutetsuaren azken edizioan saritu zituzten filmak edota arrakastarik handiena izan zutenak proiektatuko dituzte. Egun bateko formatua izango du zikloak. Iazko edizioan Bilbon eman zituzten bost film emango dituzte Elgoibarren Mendi Tour egitasmoaren barruan: *Charge 2*, *Aterpean Ateri*, *The Wurl*, *Free as Can Be* eta *Mendian Hil*, *Hirian Hil*.

Azaroaren 12rako antolatu dute zikloa (barikua) eta Elgoibarko Herriko Antzokian izango dira emanaldi guztiak, 21:00etan hasita (2 orduko iraupena izango du saioak). Sarrerak egunean bertan eskuratu beharko dira Herriko Antzokiko leihtilan, 4 euroan.

## Aitziber Olaizolak irabazi du Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketako jardunaldia

**P**andemiak eragindako geldialdia pasatuta, martxan dira berriro ere bola joko txapelketak. Joan den urriaren 16an hasi zuten Euskal Herriko 31. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa, Elorrioko Argiñeta auzoan. Guztira, 73 bolarik hartu zuten parte. San Andres taldeko Jose Gabriel Nuñez soraluzearra gailendu zen, zortzi txirlo botata. Joan den zapatuan, urriaren 23an, jokatu zuten bigarren jardunaldia Soraluzen, San Andres auzoan. 77 bolarik hartu zuten parte eta San Miguel taldeko Aitziber Olaizola izan zen guztietan onena, 7 txirlo botata. Lehen jardunaldiko irabazle Jose Gabriel Nuñezek egin zuen bigarren, sei txirlo botata, eta Oier Ugarteburu eibartarrak hirugarren, honek ere sei txirlo botata. Aurtengo Euskal Herriko Txapelketak lau jardunaldi izango ditu, eta hirugarrena Markina-Xemeingo Lauzirika Herri Bolatokian egingo dute, azaroaren 6an; eta, laugarren eta azken jardunaldia, aurtengo sailkapen orokorra erabakiko duena, Azpeitiko Garmendipen jokatu dute, azaroaren 13an. Astebete geroago, azaroaren 20an, jokatu dute lehendakari txapelketa, Iruzubietako bolatokian, Ziortza-Bolibarren.



### Uxue Ansorregik hirugarren egin du Euskal Herriko Aizkora Txapelketan



Mungiako Matxin plazan jokatu zituzten urriaren 24an Euskal Herriko aizkolari eta harri-jasotzaile txapelketak. Bakarkako txapelketa ofizial batean inoiz baino emakume gehiagok hartu zuten parte, sei emakumek hartu baitzuten parte aizkorako eta harri-jasotzeko txapelketetan. Aizkolarien arteko lehian Berako Nerea Sorondo izan zen azkarrena, 15 minutu eta 41 segundoko denbora eginda. Laiene Pikabea hernaniarrak egin zuen bigarren denborarik onena: 19 minutu eta 24 segundo. Uxue Ansorregik osatu zuen podiuma. Herri kirolari mendarorarrak 22 minutu eta 32 segundoan bukatu zituzten lanak. Aizkolari bakoitzak bosna enbor moztu zituzten: 36 ontzako bi enbor, 45 ontzako bi enbor eta kanaerdiko bat (54 ontzakoa).

### 'Maite Maiora kirolgunea'

Mendaroko Andoneikua kirol eremuak 'Maite Maiora kirolgunea' izena du atzoz geroztik, herriko saltakariaren omenez. Mendaroko Udalak udalbatzaren atzoko osoko bilkuran onartu zuen izena aldatzea. Maiora birritan izan da munduko txapeldun mendi lasterketetan, azkena joan den uztailean, eta goi mailako makina bat lasterketa irabazi ditu azken urteotan munduan barrena. Omenaldi ekitaldia ere antolatu zuen Udalak bilkura osterako, eta amaieran kirolgunea joan ziren kirol eremuaren izen berria daraman plaka jartzera.



Arg.: FOTOSU





**A**ste honetan bi erretratu zahar bidali dizkigute BARREnera, biak ere arrazoi berberetatik: Juan Luis Mugertzak bidali digu bat, eta bestea, Mila Osorok ekarri du. Joan zen astean hil zen Koldo Aranburu ageri da bi argazkietan, eta haren omenez publikatu nahi izan dituzte bi argazkiak.

Lehenengo argazkia Juan Luis Mugertzak bidali digu. 1964. urtekoa da, eta Ubitarte inguruan aterata dago. Argazkian ageri diren mutikoak dotore jantzita daude, egun horretan egin zutelako lehenengo jaunartzea. Hauek dira argazkiko protagonistak: **Goian, tente: Xabier Etxeberria; erdian, Ramon Blanco eta Juan Luis Mugertza eta behean, Jose Manuel Juaristi+ eta Koldo Aranburu (†).**

Bigarren argazkia Mila Osorok bidalitakoa da. Lagunartean Eskoriatzako Aitzorroztz mendira egindako irteera batean ateratako erretratu da. Sarri joaten ziren ingurune horretara, eta irteera horretan 18 bat lagun joan ziren. Rappel egiten ibili ziren hango hormetan, eta Koldo Aranbururen iniziatibaz, zuhaitzetan hasi ziren sokak jartzen, eta tirolinak egiten. Oso oroitzapen politak dituzte garai hartakoak: **Goian, ezkerretik hasita Angel Mari Garate, Xabier Etxeberria, Jose Mari Zubiaurre (Txillarre), Iñaki Fernandez (Patati) (†), Patxi Zabala (Aisti) (†) eta behean Koldo Aranburu (†), Mila Osoro eta Olatz Narbaiza.**

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat, eta garabia erabiltzeko titulazioa ere bai. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. Etxeko langile moduan. ☎ 631 425 686

Haurrak zaintzen edota eskola partikularrik ematen egingo nuke lan. DBH4ra arteko ikasleei laguntzeko aukera daukat. Euskalduna naiz. ☎ 688 624 155

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizetan eta orduka. ☎ 641 821 288

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 631 677 339

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 643 776 157

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 643 977 786

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukalde lanetan aritzeko prest nago. ☎ 602 047 812

LH eta DBHko klase partikularrik emateko prest nago, arratsaldetan. Magisteritza ikasketak ditut. ☎ 688 626 156

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 662 460 266

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita asteburuetan ere. ☎ 643 584 198

Adinekoak zaintzeko prest nago. Zainkarako ikasketa ofizialak eginak ditut. ☎ 632 304 656

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 602 490 595

**Eskaintzak**

Ingeles Filologian lizentziatua den pertsona behar da eskola-laguntzarako. Ordutegi eta egunak adosteko. ☎ 660 969 679

**ETXEBIZITZAK.....**

Apartamentu bat alokatzen dut Elgoibarren, pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

**BESTELAKOAK.....**

Gure Bide elkarteak bazkide egiteko aukera aukera eskaintzen du. Informazio gehiago nahi izan ezker, mezu bat idatzi behar da [gurebide@gmail.com](mailto:gurebide@gmail.com) helbidera.



**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar

*Mila esker zuen konfiantzagatik!*

**Neguko bilduma berria!**

**Etor zaitez ikustera.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**administradores**

Departamento de Gestión de Administradores de Tesis  
Publicación Tesis Administradores  
Loreto de Barrocas

**Gure komunitatean bizilagun batek urtebete baino gehiagoko atzerapenarekin ordaintzen ditu kuotak eta horrek likidezia arazoak sortzen dizkigu. Likidezia arazo horien ondorioz, kontratatutako zerbitzuak atzerapenez ordaintzera behartuta gaudede edo eta bestela gure poltsikotik dirua aurreratuzera, kontratatutako zerbitzu horiek eten ez diezazkiguten. Zordun horiei errekaru bat jarri ahal diegun jakin nahiko genuke.**

Legeak ez du mugarik zehazten komunitateak zordunari ezarri diezazkiokeen errekaru gainean. Bizilagun batek dituen betebeharrak oso-osoan nahiz partereren batean betetzen ez dituen kasuetan, zigor klausula ezartzea legoke, eta Kode Zibilak berak klausula hori judizialki leuntzeko aukera eskaintzen du. Zigor klausula hori, baina, denek adostua izan behar da, eta adostu osteko arau-hausteetan bakarrik aplikatu ahal izango da, eta ez adostu aurretik egindako zorren kasuan.

**AHOLKUA: Bizilagunen batzarrean adostu behar dira akordio horiek. Era berean, batzar horiek bera izango da akordio horiek etetea erabaki beharko duena edo eta akordio horiek indarrean noiz arte iraungo duten zehaztuko duena.**



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguaztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Elia**, astelehenean 10 urte bete zenitue-lako! Mila muxu etxekoen partez, neska handi! Asko maite zaitugu!

10 urte! Gure etxeko poztasuna! Gozatu, maitea! Zorionak, etxekoen partez.

Azkenean iritsi da zuen eskontza ospatzeko eguna. Primeran pasatuko dugu. Zorionak etxeko guztion partez.



Zorionak, **Ibon**, zure 10. urtebetetzean. Muxu handi bat familia-koen partez.

Zorionak, **Nile**, domekan 4 urte be- teko dituzulako, eta zuri ere, **Laida**, azaroaren 2an 9 urte egingo dituzulako. Oso ondo pasa zuen urtebetetze egunetan. Muxu asko familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 743 704**  
**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BALAY 3SB286D ARROPA LEHORGAILUA**

**499 €**  
(dendako prezioa)

86,60 €-ko errenboltsua oparitutako dizugu.  
\* kontsultatu beldintzak.  
Azken prezioan sartu gabe.

- A+ energia-mota
- 8 kg karga .
- Bero-pompa.
- Hasiera geroratus 24H.
- Hezetasun sentsoreen bidezko lehortzea.
- Gubxiago-lisatu funtzioa.
- Hezetasun-sentsorea.
- 40 minutu programa.

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

JARDUNALDIAK 2021

**ANTZINAKO OGIBIDEAK**

IRULEAREN (HILANDERA) ZUZENeko ERAKUSTALDIA

**2021/11/06 larunbata**  
Ordua: 11:30etik 13:00etara.  
Lekua: Makina Erremintaren Museoa.  
Sarrera: 5 €. Leku kopuru mugatua. Izena eman behar da.

Emaila: [museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) Tel.: 943 749466 Facebook: makinaerreminta-museoa  
Instagram: makinaerreminta-museoa. Izena emateko azken eguna 2021/11/05.

**ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA**

## 29 BARIKUA

**19:00** Bideo foruma: 'Nueve vidas'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. LILAn.

**20:00** Elkarretaratzea: 'Giza eskubi-deak, konponbidea. Josu Lariz etxera'. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

## 30 ZAPATUA

**9:00** Hilabeteko azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktak salduko dituzte Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute.

**16:00** Xaboi naturalak egiteko tailerra. Aita Agirre kultur kafean. 10 euro ordaindu behar dira.

**11:00** Elgoibarko Gazta Txapelketa. Kalamua elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

## 31 DOMEKA

**16:30** Antzerkia: 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona'. Gorakada taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian. Sarrerak, [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean erosi daitezke aurrez, eta geratzen badira, egunean bertan Herriko Antzokiko leihatilan.

## 5 BARIKUA

**20:30** Antzerkia: 'Erik eta Win'. Herriko Antzokian. Sarrerak, [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean erosi daitezke aurrez, eta geratzen badira, egunean bertan Herriko Antzokiko leihatilan.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Madres paralelas'

29 barikua: 21:00  
30 zapatua: 19:00 / 22:15  
31 domeka: 19:00  
1 astelehena: 21:00

## Arimen gaua

### Elgoibarren



#### URRIAK 29

- 16:30 Kalabaza eta mozorro tailerra Ludotekan, LH 4, 5 eta 6. mailako haurrentzat. Izena emandakoentzat soilik.
- 19:00 Dantza partehartzaileak, Kalegoen plazan. Mozorrotuta joateko deia egin dute.

#### URRIAK 30

- 11:00 Gaztaina eta mozorro tailerra Kultur Etxe kanpoan. Familian edo lagunartean hartu daiteke parte.

#### URRIAK 31

- 17:00 Arimen Gaua, Gaztelekuan
- 18:30 Eskean irtengo dira. Esaldi eta kantuak erabiliz trukean gozokiak jasoko dituzte LHko umeek herriko dendetan. Izena emanda daudenentzat soilik.
- 20:00 Arimen gaueko amaiera ekitaldia, Maalako parkean.

### Mendaron



#### URRIAK 29

- Mozorro beldurgarriak eta desfilea. Ludotekan.

#### URRIAK 30

- Mozorro lehiaketa eta beldurrezko filma: 'Eliminado'. Gaztelekuan.

#### URRIAK 31

- 18:00 Umeentzako jolasak. Frontoian, Arnok antolatuta, Udalaren laguntzarekin.
- 19:00 Haitzulo beldurgarria. Garagartzako elizpean, Arnok antolatuta, Udalaren laguntzarekin.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

29 BARIKAKUA	30 ZAPATUA	31 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIKAKUA
Egunez Yudego	Egunez Oruesagasti Yudego	Egunez Oruesagasti	Egunez Garitaonandia	Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00  
Arantzazu Izpizua, Ibarburutze, 7 (Eibar)  
943 201 912

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

AZAROAK 5, BARIKUA  
19:00etan Debako Kultur Elkartean

Mahai-ingurua: Karanbola Hirukoitza: *Emakumeen presentzia euskarazko antzerki sorkuntzan* liburuan oinarritutako solasaldi parte-hartzaile eta performancea, EHAZE antzerkizale elkartearen eskutik. Kultur elkartean. GOAZ antzerki taldeak eta DIT feministak antolatutako Fokupean Emakume Aktoreen Festivalaren baitan egingo da ekitaldia.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriaren 31n, **03:00etan, ordubete atzeratu beharko** da ordularia.



BUELTAN DA  
ELGOIBARKO IZARRAREN

**TONBOLA!**

Parte hartu nahi duzue?

Opariak biltzen, opariak ematen, egunean bertan antolakuntzan... Animatu!



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Jose Ramon Cabrera



## Iñaki Goitia



Demagun euria ari duela sukaldetan, edo elurra mara-mara erortzen dela egongelan. Demagun ere eguzki herabe baten lehen printzek bainugela argitzen dihardutela, edo urakan-haize bat pasilloaz jabetu dela. Demagun gure irudimenak asma dezakeen guztia une honetan bertan etxeko izkina guztietan gauzatzen ari dela. Ez zaigu askorik kostatuko meteorologoaren harridura suposatzea — herriko zientzialariak fenomenoaren tamainako teoria burugabeak proposatuko ditu, egoeraren aurrean sen ona erabiltzeko fenomenoak desagerraraziko dituelakoan agian—, edota hainbat kuxkuxeroren begiradak antzematea; hain da neurrigabea gure herrian absurdoari diogun zaletasuna...

Behin imajinatzen hasita, imajinatu dezagun sinesgaitzena. Horrela, eguraldiaren gorabeherak harritu ez, eta atea ireki

diegu munstro, elfo, iratxo, gnomo zein bestelako izaki mitologikoei. Gauzak horrela, lagun berriak egin ditugu, baina gure irudimenaren emaitza direnez, irudimenak berak gordetzen du dibertigarri edo aspergarri amestearen giltza, norberaren gaitasunaren arabera.

Honenbestez, denboraren iragateak eta elkarbizitzak dakarten higadura eta asperdurak laster hartu gaitu eta jada ez gara elkarri begietara so egiteko gai. Pixkanaka lausotzen doaz. Izaki mitologikoak lehenbizi; fenomeno atmosferikoak ondoren. Hala ere, azkeneko unean euriaren eta eguzkiaren arteko sinkroniak ahalbidetuta, tximiniatik gora ostadar batek zerurako bidea hartu du. Horrelako aukerak galdu behar ez direnez, batetik, klima aldaketek hezurretan eragiten dioten minez gogaituta, bestetik, aitona ostadarrean gora ihes egin berri du. Demagun gorenean dagoenean aitona irudimena agortzen ez dela.

*“Behin imajinatzen hasita, imajinatu dezagun sinesgaitzena”*






## Francisco Isasti Irusta

2021eko urriaren 22an hil zen, 92 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak




## Agurtzane Unamunzaga Zorrozueta

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Zure Lagunak



## Agurtzane Unamunzaga Zorrozueta

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

**Bi zurito ta hiru kalimotxo  
zenbat barre eta zenbat izerdi.  
Etxian bezala,  
bertatik ezin ihes egin.**

**Zarraila berrixa,  
Txuriko atian.  
Zu betirako gure bihotzian.  
Gugan bego.**

TXURIBELTZEKO LAGUNAK



## Agurtzane Unamunzaga Zorrozueta

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Ni joatean ez zaituztet negarrez ikusi nahi,  
askatasun haize bat naiz.**

Etxekoak





*Erreserbatu gure  
Tripontziak menua!*

**2021 // DEBABARRENA**

**Azaroaren 5etik 28ra**



**EIBAR**  
Bidebarrieta 39  
943 84 55 03  
[www.baratzegourmet.com](http://www.baratzegourmet.com)

Bolubarriko udazkeneko barazkiak foie micuit kuboekin

Alkorta bakailao-trontzoa garbantzua-saldan konfitatuta

Txahal-masailen terrina bere zukuari, Gaztainerre-konpotarekin

Mendaroko txokolatzeko ganatzea marakua crumble eta sorbetearekin



**ELGOIBAR**  
San Miguel gaina 44  
943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)  
Azaroaren 14tik 29ra itxita

Etxeko aperitiboa

Baserriko pipermorroak labean erreta, Kantauriko hegaluze-mendrezkarekin, piperrekin eta sagar eta sagardo ozpin-olioarekin

Ondarroako legatz-trontzoa txangurro eta itsaski gainean

Bertako esneko arkumea konfitatua eta hezugabetua bere zukuari

Baserriko sagarrekin egindako spring roll-a mahaspasekin eta bainila eta Mendaroko txokolatzeko kremarekin



**ITZIAR - DEBA**  
Itziar auzoa 2  
943 19 90 35  
[www.hotelkanala.com](http://www.hotelkanala.com)

Etxeko aperitiboa

Ahate- eta kuiatxo-rabioliak porru eta trufa kremarekin

Bakailao-brandada labean erretako piperren gainean

Euskaltzerri-masailak Arabar Errioxako ardotan erregosita

Jogurt mousse-a fruitu gorriekin, intxaur karamelizatuekin eta Mendaroko txokolatzeko teilarekin



**ITZIAR - DEBA**  
Galtzada Kalea 13  
943 19 90 04  
[www.salegi.net](http://www.salegi.net)

Txuleta-kroketa pikillo minezko kremarekin

Basetzerri talo txikia ahuakate eta tipula morearekin

Hegaluzea tenpuran, marmitako apar gainean

Urkioko arkume zilindro glasatua perretxikoz bete

Brioche torrada karamelizatua Mendaroko txokolatzeko stracciatella izozkiarekin



**MUTRIKU**  
Laranga auzoa z.g.  
943 60 32 42  
[www.pikua.es](http://www.pikua.es)

Kantauriko txapiroekin eta Mutrikuko atunarekin egindako entsalada

Zapoa parrillan

Beliosoroko txahal eta Goienetxeko gaztarekin egindako katxopoa

Mendaroko txokolate trufa zuri-beltza



**ERMUA**  
Erdikokale 19  
943 54 35 80  
Mendiola Jatetxea

Debako tomatearekin egindako entsalada, Mutrikuko mendrezka eta piparrekin egindako ozpin-olioarekin

Patata- eta tipula-tinbala, tenperatura baxuan egindako baserriko arrautza eta txerri iberikoaren urdaiazpikoarekin

Alkorta bakailao kurruskaria, bere zukuaren erredukzioarekin

Euskaltzerri-masailak saltsan, Sagarmiña txakolinarekin egindako erredukzioarekin eta lasto-patatekin

Mendaroko txokolatzeko brownie-a tenpuran



**SORALUZE**  
Txurruka Auzoa 11  
943 75 15 81  
[www.txurruka.eus](http://www.txurruka.eus)

Hostorea entsaladarekin, Euskaltzerri hirugiharrarekin eta Egotzako ahuntz-gaztarekin

Legatza txingarretan, Itsasoi baserriko wok erara prestatutako sasoiko barazkiekin

Egotzako antxumea bere zukuarekin, tenperatura baxuan erreta

Mendaroko hiru txokolatzeko gure azkenburuko

**BENETAKO TRIPONTZIA ZARA? BETE ITZAZU LIBURUXKAKO 4 ZIGILU ETA ESKURATU ZURE TRIPONTZIAK AMANTALA!**

**Menua 28€**  
BEZ berriz



Jatetxe guztietan botila bat aukeran:  
Sagardoa, Txakolina edo Arabar Errioxako ardoa.  
Ura eta kafea berriz.

#Tripontziak  
#Debabarrena

@debabarrenaTur  
@DebabarrenaTur  
Debabarrena Turismo

[www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com)



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



**DEBA**  
BARRENA

**Debegesa**  
DEBABARRENA